



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2017ko APIRILAREN 25ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2017ko apirilaren 25ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : *Koldobika Jauregi Zinkunegi*
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen du: Onintza Gorostidi Murua eta Jose M^a Aranzabe Urruzola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2017ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2016 Ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
5. **Alkizako Arritza Behekoa baserriko teilatuaren erreteila lanak egiteko obra baimena eskaera, M.L.O.**
6. **Danena Txirrindularitza Elkartearen eta Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalen artean Lankidetzahitzarmenaren onspena, Neska txirrindularien Sari Nagusia antolatzeke.**
7. **Kirol batzordeak, 2016 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onspena, hala bada.**
8. **Kirol batzordeak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, 2017 urteari dagokiona.**
9. **2016 urteko Trakzio Mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea, hala bada.**
10. **Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

11. Erregu, galdera eta mozioak.

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2017ko martxoaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

06/2017 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 6koa, J.I. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, non Alkizako poligono 1, 173ko partzelako pinuak atera behar duenez, herri bidea erabiltzeko baimena ematea onesten den.

06bis/2017 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 29koa, 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

07/2017 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 6koa, M.A. andreak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, non Uruzola baserrian alta emandako etxebizitza berriari, herriko ur erroldan alta emateko baimena onartzen den.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Koldobika Jauregi zinegotzia arratsaldeko 20:00 orduetan udalbatza honetara bertaratzen da.

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

IBERDROLA	55,43
LEFEBRE	872,89
LEFEBRE	413,82



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

CALPARSORO INDUSTRIAL	55,04
AUDAX	470,06
FONTANERIA ANTZIETA	370,38
FONTANERIA ANTZIETA	62,56
EBA ERKIZIA	1.413,44
ARGITU	142,59
ULAHI	547,40
AUDAX	243,57
AUDAX	50,32
AUDAX	40,95
AUDAX	235,77
AUDAX	41,88
AUDAX	128,17
AUDAX	93,97
AUDAX	72,09
AUDAX	27,03
QUISER	237,11
IZADI	152,94
BULEGOAK	175,45
MOVISTAR	81,83
MOVISTAR	74,40
AUDAX	138,56
EUSKALTEL	64,80
AUDAX	254,60
CORREOS	10,64
ARANZADI	550,00

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **7.077,71** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA

2016 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren batzarkideei 2016 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2017/06 zenbakia duen eta 2016ko martxoaren 19an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2017/06 DEKRETUA

Udal honen 2016(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2016(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		44.447,20
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		75.300,79
Aurrekontuko zordunak :	68.425,21	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	6.875,58	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		72.435,58
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	55.396,43	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	17.039,15	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		47.312,41
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		16.321,30
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		30.991,11



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	2.308,17
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-41.373,23
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	54.161,49
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	15.096,43

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	34.846,32
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	32.803,66
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	67.649,98

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

BOSTGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO ARRITZA BEHEKOA BASERRIKO TEILATUAREN ERRETEILA LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.L.O.

Ikusirik M.L.O. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Arritza Behekoa baserriko teilatuan erreteila lanak egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik apirilaren 18an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“ALKIZAKO “ARRITZA BEHEKOA” BASERRIKO TEILATUAN ERRETEILA LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

M.L.O.U. andereak, “Arritza Behekoa” baserriko teilatuen erreteila lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako idatziaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila ordezkatzeko izango da, aurrekontua, 2.688,95 €-koa izanik (BEZ-a gabe).

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikulua arabera, “Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko egin beharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.”

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldatzeko hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

“Arritza Behekoa” baserria Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrian kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera baserriak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.

Alkizako lur ez hiritargarriaren araudiaren 2 artikulua arabera, teilatuaren akabera, zeramikazko teilazkoa edo honen antzekoa izan beharko da.

Hau honela izanik eta eskarian azaltzen diren lanak Alkizako araudiarekin bat datozenez, legeztagarriak direla informatzen dut.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Obra hondakinak, baimendutako zabortegi batera eramane beharko dira eta lanak amaitzean, eraispent-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- M.L.O.U. andreak egindako obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Arritza Behekoa baserriko teilatuen erreteila lanak egiteko obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari teknikoak egindako txostenean jartzen



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

duenari baldintzaturik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

SEIGARRENGO PUNTUA

DANENA TXIRRINDULARITZA ELKARTEAREN ETA ALKIZA, ADUNA, ASTEASU, LARRAUL, VILLABONA ETA ZIZURKILGO UDALEN ARTEAN LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, NESKA TXIRRINDULARIEN SARI NAGUSIA ANTOLATZEKO.

Ikusirik Danena Txirrindularitza Elkarteak Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo udalekin hitzarmen bat sinatu nahi duela, non, eskualdean Neska Txirrindularien Sari nagusi bat antolatu nahi dute. Nesken kirola sustatzeko helburua nagusia izanda, neska kirolariei goi mailako proba bat eskaini nahi diete eta gaztetxoek kirolaren erreferentzia bertatik bertara ezagutu dezaten. Proba sei urte jarraietan antolatzea erabaki dutelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: Danena Txirrindularitza Elkartearen eta Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo udalen arteko Lankidetz hitzarmena onestea, neska txirrindularien sari nagusia antolatzeko.

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari 500,00 eurotako ekarpena burutzea, Neska txirrindularien sari nagusia antolatzeko.

LAUGARRENA: 500,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARRENA: Erabaki hauen berri Danena Txirrindularitza Elkarteari ematea.

ZAZPIGARRENGO PUNTUA

KIROL BATZORDEAK, 2016 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Udalak, 2016 urtean Kirol Batzordeari 1.920eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Kirol Batzordeak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2016. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengo izanik:

SAN ISIDRO

- ✓ Frontenis Txapelketa:
- Trofeoak+ txapelak:642
- Pelotak + nikiak: 269,35€

GUZTIRA:911,35 €

HERRIKO FESTAK

- ✓ Pelota Txapelketa:
- Pelotak. 108€
- Trofeoak+ txapelak:568,36€
- Gaztak:25,15
- ✓ Gaztetxoen Pelota:200€

GUZTIRA:901,51 €

SAN MARTIN

- ✓ Gaztetxoen Errueda lasterketa: 159,9€
- ✓ Mus eta Eskoba Txapelketa:286,76 €

GUZTIRA:446,66 €

GASTUAK: Guztira 2259,52€

SARRERAK: Udaletxea 2000€
Frontenis txapelketa 200€
Pelota txapelketa 80€

Geratzen zaigun dirua: + 20,48€

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

San Martin Plaza, 12zkia.20494 Alkiza*Tel.:943 69 02 35 * e-mail: udala@alkiza.eus *web: www.alkiza.eus



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Kirol Batzordeak, aurkezturiko 2016. Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

ZORTZIGARRENGO PUNTUA

KIROL BATZORDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, 2017 URTEARI DAGOKIONA

Ikusirik Alkizako Kirol Batzordeak eginiko eskaera, non azaltzen duten 2017 urterako prestatu nahi dituzten ekintzak burutu ahal izateko laguntza ekonomikoa behar dutela.

Ikusirik 2017 urteko aurrekontuetan, Alkizako Kirol Batzordeari esleitzeko 1.920,00 eurotako partida bat dagoela, 481.340.00.01 alegia.

Ikusirik 2017 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Kirol Patronatuari 1.920,00.- eurotako diru-laguntza ematea, 2017 urtean prestatu dituzten ekintzak burutu ahal izateko, udal aurrekontuetako 481.340.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA: 1.920,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Alkizako Kirol Batzordeari jakinaraztea, urte bukaeran, urtean zehar eginiko ekintzei buruzko gastuen kitapena aurkeztu beharko dutela.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako Kirol Batzordeari ematea.

BEDERATZIGARRENGO PUNTUA

2017 URTEKO TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ZERGA ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2017 urteko trakzio mekanikodun ibilgailuen udal zerga kobratzeko errolda prestatua dagoela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Alkizako Udaleko 2017 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartzea.

BIGARRENA.- Alkizako Udaleko 2017 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga jendaurrean ipintzea edonork aztertu eta egoki dituen alegazioak burutu ditzan.

HIRUGARRENA.- 2017 urteko trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga ordaintzeko ondorengo borondatezko epea ipintzea: 2017ko maiatzaren 2tik uztailearen 3ra bitartean, biak barne.

HAMARGARRENGO PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARRENGO PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.